

# ANDONI KORTA OROITUAZ

## (Bere omenaldiko xeetasunak)

Xabier

1972ko Martxoaren 4an joan zitzaigun mundu ontatik betirako Andoni Korta "Añarbe", abertzale zintzo eta euskaltzale sutsu izan genduen Erreteriar au.

Urteak laister bañan laisterrago joan dira eta egia esan, ba dirudi urte batzuek besterik ez dirala elkarrekin giñela Xenpelarren Eriotzan mende urrenean egin ziran ospakizunetan eta ondoren 1971ko urtean bertsolari gazteentzako egin ziran lenengo Xenpelar sarian; ekintza auetan batzordekoa izanik ez zuben ikusterik izan zenbait añako arrakasta izan duan urteetan zear eta zenbait goi mailako bertsolariak irten diren sariketa artatik. Sariketa ura antolatu ondoren gure Jaunak betirako bereganatu bai zuben.

Ogeita bost urte igaro dira bera il zala. Bañan berak euskal baratzen erein zuben gazteen arteko euskal zaletasuna eta bereziki antzerkirako naitasun berezi ura, kimu bihurturik iraun egiten dute naiz eta batzuetan ixilguneak izan. Orregaitik bere oriotzaren ogeita bostgarren urtemugan Ereintza Elkartek esker onez ainbeste laguntza eta aolku eman zion Andoniri, omenaldi berezi bat egiteko erabakia artu zuan.

Betarako batzorde bat eratu zan Ereintza Elkartea buru izanik, antzerkizale eta antzeslari izanak bat egiñaz eta onela egitarau txukun eta errikoi bat antolatu zan. Erriko gazte jendeak batez ere nolakoa izandu zan eta zer lan egin zituan denbora larri aietan euskalzaletasuna eta euskera ain zigortuak egon ziran denboretan; batzorde onetan bereziki omenaldia eratzekean partaide berezienak Andoniren ikasle izan zirenak berriro antzerkirako egin naia azalduaz era orretan antzerki oparia bere maixuari eskeiniat. Eta emen dijoaz. nik ere nere lagun miñari ezagutzea eskeiñiat. bere omenaldi egunetan igaro ziran pasadizu batzuek idatzita gelditu ditezen.

Otsaillaren 26an Udal Etxeko areto nagusian arratsaldeko 7,30etan itzaldi bat izandu zan "Andoni Korta Erreteriariko Euskal Antzerkiaren Historian" gai izanik, izlari Eugenio Arozena Ikertzaillea.

Itzaldi onetan ondo baiño obeto bere ikertzaile lanak azaldu zizkigun izlariak Andoniren nortasuna eta antzerki erakusten zeukan jakinduria, baita ere Erreteriarik beste garai batzuetan izandu zuban doitasun eta mailla bere zuzendariari esker. Bere itzaldiari esker jakin genituan ainbat gertaldi urteetan zear antzerki arloan izandakoak. Benetan ulertzerraza eta errikoia izandu zan bere itzaldia bear zan maillan ipiñiaz Andoniren giza-irudia, ez zan jende ugaririk izandu itzaldi

ontan bañan izandu ziran gazteen artean benetako jakin naia ikusi zan erabillitako gaietaz.

Otsaillaren 27an eta au ere Udal Etxeko aretoan beste itzaldi bat izandu zan Mikel Ugalde izlari izanik eta "Andoni Korta euskalgintzaren eredu" gaia erabilliaz. Mikelek gai au oso ondo ezagutzen zuelarik, Andoniren bizi edestia argi eta txukun azaldu zigun garai artako gazteen artean nola piztu zuan ain galtzen ari zan euskal zaletasuna, bere biotzetan sarturik aberri maitasuna eta antzerkirako nai berezia Andonik ipiñitako bideari jarraituaz. Bai au eta besperako itzaldiak ere balio aundikoak izan ziran Erreteriar onen bere erriaren Euskal Antzerkiaren Historian alde egindako lanak eta orobat bere euskalgintzaren eredutasuna azalduaz ondorengoak bere bizitzat jakin al izateko.

Martxoaren Tean, bi Euskal antzerki emanaldi izan ziran, bertan On Bide zinema jendez beteta izanik, bertan "Añarbe-ren bila" antzerkia bere ikasle izandu zan Mikel Ugaldek eratu, zer omenaldi oberik maixuarentzat ikasleak eratu eta antzeslari oiak antzestua izanik antzerki berezia.

Eta onela asi zan Antzerki jaialdia Erantzailleen aurkespen onen ondoren: "Jaun andreok lehenik eta behin eskerrik beronenak Andoni Kortaren omenaldira etorri zeratelako, aberkide zintzo, euskaltzale sutsu, langile apal eta lagun nekaeziñari eskeintzen dio Ereintzak omenaldia berak ere Euskal baratzen ereiten jakin zuelako, Euskal antzerkia hainbeste maite eta bizi izan zuen Andonik, euskal antzerki baten bidez jasoko du esker ona berarekin antzekide izan ziren guztien izenean".

Eta aurkezpen onen ondoren Erreteriar ainbeste urteetan egin ez zan Euskal Antzerkiari asiera eman zitzaion, bañan ez nolanaiko antzerkia ere, une berezi artako Mikel Ugaldek eratuako "Añarbe-ren bila" izenekoa.

Mikel Ugalde azaltzen zaigu antzerki onekin egille mardul mailla oneko baten antzera, gaia oso berria. Bi erritar Atanasio eta Sabin zerura joaten dira Ereintzako ordezkari bezela bertan dagoen Andoniri omenaldi bat egin nai diotela lurtean eta etorri dedilla bertan omendua izateko.

Ori da antzerkiaren korapilloa bañan korapillo ori askatzeko zenbait elkarriketa egin bear ko dituzte zeru atari eta zeru barrenian bertako biztanle eta santuekin. Personaiak ondo xedatuak bakoitza bere paperarekin, bakoitzari ba dio argazkia atera diola ain lortua izateko, ziur nago Andonik "bikain" mailla emango ziola antzerki onen eraiketari.

Eta zer esan bertan izan ziren antzeslariari buruz, berauek urteetan sasoiestuak izan arren Andoniren erakusketak nola-koak izandu ziren ondo baiño obeto azaldu zituzten ondo ikasitakoak ondo gogoan gordeta gelditu zirala bakoitzak bere egin bearrari ondo baiño obeto elduaz.

Atana eta Sixto, Ereintzako ordezkari bezela zeruko atari eta barruan beren ordezkari ondo azaldu zuten Arantza Perez eta Maite Olaizola oraingo azafata dotoreen antzera zeruko sarrerako gelan. Pilartxo Olaskoaga zeruko bulegoaren ordezkaria bere ordenadore ta guzti. Sebastian Irastorza, San Pedro izanik giltzaren ordezkari oraingo aurrerapenez betea zeruko atea ondo zainduak al izateko. Maria Magdalena gure zaindariari bizitza emanik Mari Carmen Irastorza. Mari Sorgin Errenteriarra zeruko esamesari berri emanaz, Itziar Mitxelena, eta zer esan Xabier Etxabe, Olegario Izagirre eta Jesus Mari Oliveri, Koldo, Andoni eta Xenpelarren paperetan ematen zuten oraingo giroan zabiltzela orduan izaten zituzten tirabirak euskara batua zala ta ez zala. Eta Xenpelarren giroa ere zeruetan nolakoa zan azalduaz, bere bertsoak abestuaz, eta antzerki onen berriak osorik gelditu ditezten "dekoratuak" Sabin Irastorza (semea) eta Idurre Ugaldek egiñak izandu ziran, altzariak Azkue etxeak utzitakoak izanik.

Txaloak ugari eta berotasunez beteak izan ziren egille eta antzeslariantzat, danak pozez beterik bertan igaro zuten denboragaitik, beren iritzia izanik berriz ere berriro ere prest egongo zirala orrelako jaialdia ikusteko.

Martxoaren 2an. Goizeko 9.30 etan Ereintza Elkarteko txistulariak erriko kaleetan zear goiz eresiarekin esna arazi zituzten erritarrak.

Goizeko 11etan; Jasokunde Andre Mari elizan Meza Andoni Korta zanaren alde, eleizako koroa eta beste abeslari lagunekin meza abestuaz, meza emaille Jose Mari Muñoa bikario jauna izanik eta itzaldian aipamen berezi bat izanik. Bukaeran bertsoak Mikel Ugaldek egiñak eta Pilartxo Olaskoaga eta Jesus Mari Oliverik abestuak eta 12,15etan Ereintzako txistularien kontzertuaren ondoren Versailles jatetxean Ereintzako leengo eta oraingo bazkideen eta lagunaren arteko bazkaria, eun lagunetik gora elkartu giñan bertan umore eta giro alaia izanik.

Eta azkenik Martxoaren 4an Eskolarteko "Andoni Korta I" Antzerki topaketa. Eskuarteko izandu ziren ikastetxeak. Oiantzungo Elizalde B.H.I., Errenteriarra Beraun Berri eta Biteri Olibet erri ikastolak eta Oorereta ikastola laugarren izanik.

Topaketa auek oso onurakorrik izandu ziran gaztetxoaren artean antzerki zaletasuna beren artean sortuazirik eta auek omenaldiko azken ekintzak izanik.

Badirudi omenaldi onek bere fruituak izan dituela gazteen artean berriro antzerkirako zaletasuna sorturik, batibat Andoniren nortasuna gazteen artean ezagutu izan eta ezagueraren onen bidez berriro Ereintzaren altzoan antzerki talde bat



sortzeko asmoak ba dirala, orixe bai izango litzakela omenaldi ontatik sortutako ikuspeirik bereziena eta Andonirentzat eskeintza eta oparirik onena.

Egun pozgarria izango litzake Errenteriarrentzat asmo ori egi bihurtuko balitzake eta euskal antzerkia berpiztu izan berriro, erriko jendearen artean oso ondo artua izango ba lirake zaletasun onez beterik gelditu bai dira azken emaitzarekin.

Ziur nago zeru goitik Andoniren laguntza ere izango dezutela eta antzezleri oien aolkuak izango dituzuela, aurrera bada gazte antzerkizaleok zuben asmo eder orrekin. Omenaldiko antzerki egunean bere sendiari egindako oroigarriko koadroan, dirala 24 urte egindako omenaldiaren kartela azaltzen du argazkiak eta bertan oroigarritzat auxe esaten du plakak.

LEHENGO OMENALDIA GOGOAN  
GUZTIOK ELKARTURIK GAURKOAN  
ITXAROPENEZ GEROAN  
EREINTZA ELKARTEAK ANDONIREN FAMILIARI ESKER ONEZ.

Eta itz eder auekin amaitzen det asmo onez egin deten "Oarso" aldizkarirako idazlan au noizbait omenaldiko egun aietan egindako ospakizunak oroitu al izateko nor izandu zan Andoni Korta "Añarbe".

Lerro auek idatzi ondoren berri on bat iritxi da nigana, idazlan onetan azaltzen nuben susmurrak ba zirala Ereintza Elkartean berriro ere Euskal Antzerki taldea osatzeko asmoa ba zala, bada asmo ori egi bihurtu da eta lanean asiak dira berriro gazte talde bat eta gainera orain ere Antzerki berri batekin; pozaren pozez jarri naiz Andoni Kortari egindako omenaldiak ondorengo ona izandu duelako; Mikel Ugalde eta Sabin Irastorzaren zuzendaripean aurrera dijoaz antzerki berriaren ikasketak; zorionak biotzez antzezleri oi onen ize-  
nean eta aurrera beti Eusko Antzerkiaren alde. ✍